

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko apirilak 16 / III. urtea / 71. zenbakia

*Amen eta omen*



## AINGERU EPALTZA

**B**i aste iragan dira jadanik Nafarroako Gobernuak 1991.eko erroldari dagozkion datuak jakinarazi dituenetik. Bi aste, euskal hiztunen kopuruak 1986.etik —errola azkeneko egin zen urtea— hona egiazki izan duen bilaeraren berri izaten ahal dugunetik. Eta 'ahal' diot, datu hori ez baitut oraino inon irakurtzeko parada izan.

Zabarkeria? Ez dakit. Nere baitan badut susmoa ez-ikusia egin ez ote zaion kontrako aldera begiratu. Ez bide zen komeni berria kanpatzea zaleak adoregabetuko ez baziren. Akzionistek enpresako gestore txarrei bezala, kontuak eskatzea gogoratuko zitzaizkien goial.

Llaburzki. 1986.eko erroldaren arabera, 50.953 euskaldun ginen Nafarroan, biztanleriaren % 10,15a. 1991.ekoan, berriz, 52.023 agertzen gara, % 10,34a. 1.070 aleko aldea, hortaz. % 0,19ko gorakada. Bortz urtetan. Ekitaldi bakoitzean 200 euskaldun gehiago 'ekoiztera' justu-justu ailegatu gara. Epe horretan erakunde publiko nahiz pribatuak euskararen inguruan Nafarroan gastatu duten diruketaren berri duenak kalkulua egin lezake kostua zein izan den buruko.

Egia da, datuak eskualdez eskualde erabilia, hainbat ñabardura ezar daitekeela lehen inpresio ezkor horretan. Eskualde euskaldunetan, adibidez, zenbaki absolutuetan irabaziaz 200 nonbait hor badira ere, portzentaia % 59,37tik % 60,85erako jauzia egin du. % 1.5eko gorakada, hortaz. Ez ardo ez ur diren 'ia ia euskaldunen' kopurua ere % 2an igo da alde honetan. Bertze adatu aunitzekin (erabilpenari dagozkioneekin, bereziki) alderatzekoa bada ere, Mandialdean odolustea geldiarazi dela erran genezake agian.

Harrigarria bada ere, zenbaki hutsetan gorakadarik nabarmenena eskualde erdaldunetan izan da: 550 euskaldun gehiago abantxu, % 0,71tik % 0,99ra. Ikastola eta gau-eskolen mugimenduari merezimendurik kendu gabe, gure iduriz neketan esplika daiteke hori barne emigrazioaren eragina atzendurik.

Estrategikoki garrantzitsuenak den Eskualde Mistoan, berriz, miseria gorria: 350 bat euskaldun gehiago, erran nahi baita, % 0,16ko irabazia (biztanleriaren % 6,2tik % 6,36ra). Ahalegin gehien kontzentratzen duen eskualdea dela kontutan harturik, emaitzak ezin izan inola ere poztekoak. Hamen zerbaitek huts egiten du.

Pasa den hilean aurkeztu zuen Aezkoako Batzar Nagusiak bailararen garapenerako plangintzaren zirriborroa. Bertan 1.100 biztanle inguru duen eremu honek egun jasaten duen egoeratik ateratzeko ardatz nagusiak zehazten dira, hau da bertatik egiten den lehendabiziko proposamen zehatz eta arautua balizko garapenerako.

Garaia ezin aproposagoa aukeratu dute aitzek inizatiba hartzeko. Despopulazio prozesu bizian —mendialde osoa be-

zalaxe—, Aezkoaren sostengu ziren bi arloek, hau da, patatak eta abelazkuntzak hondoa jo dute dagoeneko. Egitasmoak, 2.090 milioi pezetako aurrekontuarekin, abelazkuntza eta nekazaritza, nekazaritzaren industrializazioa, hezkuntza eta turismoa arloak ukitzen ditu, eta ekimen berriak proposatzen.

Asko eta asko ezkor dira, baldintzak



Abaurrepea eta Garralda.

ALBERTO BARANDIARAN

## Aezkoa: etorkizunik ote?

ez baitira onenak. Krisi garaian, gehiegitxo ematen du horrelako dirulaguntza eskuratzeak Nafarroako Gobernutik eta bailaran bertan batzuk kritiko agertu dira zenbait proposamenekin. Nolanahi ere, Batzar Nagusitik konpromezu osoa dago aurrera egiteko, eta Miguel Angel del Rio presidenteak Aezkoa «gurditik tiratzeko prest» dagoela dio. Ez da gutxi.



## Gure aukerak

# Andiamendi eta Goñibar

Goñibar —Aizpun, Azan-tza, Goñi, Munarritz eta Urda-notz— Nafarroako garaiene-takoa da. Andiamendiren ma-galean, hotza eta euria nabaria oraindik laborea, patata eta abelazkuntza da nagusi bertan. Bertan biltzen dira Nafarroan dauden bi ardi motak. Andia-mendira joaten dira Ergoiena eta Araizko latxak, eta Goñin dauden bakanak txurak dira. Asteburu honetarako propo-satzen dizugun bidaia mendi-tartean dabil oro har, eta ardie-kin bereziki lotuta. Halaber, Irañetara daraman bidea ere hartu daiteke, Arakilgo sakana ikusteko, Andiamendi eta Aralarren artean.

Horretarako Goñira joan behar da, eta hortik San Mi-geltxoko basilizara doan bidea hartu. Ondoren, basorantz da-raman bidea hartu, eta hortik beti, mendebalderuntz, An-diamendiruntz. Andiamendi pagadi handi bat zen behialarn. Gaur egun, ardiak direla eta, soilik larreak ikus daitezke, eta oraindik agerian azaltzen zaizkigu trikuharri eta Histo-riaurreko lekuko franko.

Hortik hegoalderuntz jo behar dugu, Urdanozko bor-detaraino. Izan ere, hemengo soroak komunalak dira, eta



Nafarroa osoko artzain eta behitzain etorri dira betidanik. Hortaz probetxua ateratzeko, Goñibarrek bordak eraiki zituen bertan, eta 'ostatua' Goñibarreko larretan erabil-tzen zen zimaurrekin ordain-tzen zuten artzainek.

Bertatik ateratzen den bidea hartu, eta Ernako urmaelera helduko gara. Paraje ederra, bertara azaltzen dira behorrak eta zaldiak egarria asetzera. Andiamendi nahiko ugari dira

mota honetako urak, karst bat izanda ere, zenbait tokitan irazgaikaitza baita lurra. Behorrez aparte fauna nahiko ugaria aurkitu dezakegu ber-tan, kunkunak, igelak eta beste narrastri barne.

Urdanotzera daraman bi-dean beste urmaela bat aurki-tuko dugu, 'Txikita' izeneko, eta hortik Urdanozko errepi-dera. Bertan ezkerredera hartu, eta Goñira helduko gara luze gabe.

## ERAKUSKETAK



**Aintzinako Guatemala'** ize-neko argazki erakusketa zabal-duko da datorren asteartean, api-rilak 13, Tuterako Castel Ruiz Zentro Kulturalean. Bertako udalak eta 'La Caixa' Funda-zioak antolatutik, UNESCOk bultzatu dituen Patrimonio 2001 proiektuaren barruan dago. Api-rilaren 22a arte iraungo du.

**Bingen de Pedro** pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Munizipalak Gotorlekuan duen aretoan. Ma-iatzaren 2a arte egonen da zaba-lik, eta lan egunetan arratsaldeko 18.30etatik 20.00ak arte eta jai egunetan 12.30etatik 14.00ak ar-teko orduetan egongo da zabalik.

## ZINEMA



**Dracula'** izeneko pelikula bo-tako dute asteburu honetan Lei-tzako zinemak, bi saioetan. Bata, gaur gauean izanen da, 10.30etan eta bestea igandean, apirilak 18, arratsaldeko 20.00etan. Igandean ere, arratsaldeko 17.00etan, 'Los blancos no la saben meter' izene-ko filma botako dute.

**Talento para ganar'** pelikula izanen da gaur, apirilak 16, Iruñeko Bianako Printzea zine-man, Iruñeko udalak eta Beisbol Federazioak antolatutik. Hau-rrerentzat zuzendutako ziklo ho-netan kirol horrekin zerikusia du-ten filmak bota dituzte aste guz-tian zehar. Saioa goizeko 11.00etan izanen da, eta sarrerak 100 pezetatan salduko dituzte.

**Bugsy'** pelikula botako dute bihar, Lizarrako Julian Romano kontserbatorioan, 'Cinefilos anónimos' taldeak antolatutik. Bi saio izanen dira, arratsaldeko 18.00etan eta 20.30etan.

## IKASTAROK



**Sendabelarrak** gaiari buruzko ikastaroa hasiko da datorren as-teko ostiralean, apirilak 23, Iruñeko GITE elkarteak. Ostira-letan arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara saio praktiko-teori-koa izanen da, eta larunbatetan kanpo ibilaldiak izanen dira, 10.00etatik 13.00ta bitartean. Xabier Urdin izanen da irakaslea. Apuntatu nahiez gero, Elkartera jo behar da, SAN Miguel kalean.

**Antzerkia.** Pintura eta Marraz-kia ikastaroak izanen dira Iruñeko Alde Zaharrean, bertako Auzo Elkarteak antolatutik. Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek apirilaren 23a baino lehen eman behar dute izena Auzo Elkarteak Aldapa kalean duen aretoan, edo bestela 21 25 26 te-lefonoan.

## AHAZTU GABE!

**'Apirila Kulturala'** programa jarri du martxan Urantziako Kultura Batzordeak, eta ba-rruan ekitaldi ugari prestatu dituzte: zinema, hitzaldiak, antzerkia, mahainguruak, eta abar. Hilaren bigarren hama-bostaldiko programazioa atzo hasi zen, arrazismoari buruz-ko hitzaldi batekin, eta gaur, apirilak 16, jarraituko du 'Las cartas de Alou' pelikularekin, gai berari lotuta. Montxo Ar-mendariz zuzendari naparra-ren filma hau gaueko 10.30etan botako dute, Eze-kiel hostalean. Bihar, 'Fresco y del tiempo' izeneko antze-zlana eskainiko dute, Trokolo taldearen eskutik. Ekitaldi hau ere gaueko 10.30etan ha-siko da polikiroldegi munizi-palean, eta jende asko hurbil-duko dela espero dute, horre-gatik aurkeratu dute leku hau. Emanaldiak datorren astean jarraituko dute. Asteazke-nean, mahainguru bat izanen da, 'Nekazal mundua eta bere arazoak. Europar integrazioa' gaiari buruz. Bertan, nekazal elkarte desberdinetako par-taideak arituko dira arazo hauei buruz eztabaidatzen. Ekitaldi hau Urantziako uda-letxean izanen da, gaueko 10.00etan. Programazioa la-runbatean amaituko da, jai ba-tekin, Ezekien hostalean.

## ADI!

### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako.** Elkarrizketak.

### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00eta-ra... **Karakola segi hola** gaz-teendako saioa.

### RNE RADIO 1 OM 835

Asteaz zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka-rrizketak.

**'Goizargi'** saioak emango dio hasiera gaur goizean Xorroxin Irratiko programazioari, 7.30etan hasi eta 9.30ak arte gai ugari aztertuko dira. Hau-rrak ere parte hartu ahal izan-go dute irratsaio honetan, eta kultura, ekonomia eta beste gai batzuk jorratuko dira. El-karrekin lanean' irratsaioa hasiko da ondoren, egunero bezala, goizeko 10.00etan, al-bisteak, agenda, lehiaketak, sukaldaritza, eta antzeko gaiekin.

## ASTEKO PERTSONAIK



**Iñaki Perurena**  
Harrijasotzailea

Azkeneko bi aste hauetan lau marka berri lortu ditu Iñaki Perurena Leitzako Harrijasotzaileak, bi urte horrelako lanetan aritu gabe pasa ondoren. Durangoko Ezkurdi pilotalekuan saiatu zen munduko txapelduna 317 kiloko harri handi batekin, eta erraz aski jaso gainera, 17 segundutan. Bizpahiru minutu pasa eta gero, beste marka hausteari ekin zion, 265 kiloko harria esku bakarrez jasotzeari. 24 segundo behar izan zuen arazo gehiago izan zituen ondoren aitortu zuen bezala: «iz-tarrei indarra eskatzen nien jasoaldia egiteko, baina ezin. Neure bu-ruari esan diot nola edo hala jaso behar nuela. Hilda, baina lortu dut». Forma onean hasi da Perurena, eta marka hauek hautsi ostean, 318 kiloko harriari eutsiko diola esan zuen, bihar, Bergarako pilotalekuan.



**Antonio Aragon**  
EKHaren zuzendaria

Pasa den astelehenean Ministro Kontseiluak plan hidrologikoaren zenbait lan onartu zituen, eta horretarako dirua aurikusi zuen. Es-ko urtegiaren zabaltzea dago, eta horretarako 15.000 milioi pezeta bi-deratuko ditu. Urtegiaren zabaltzearen lanak aurtan hasiko direla esan zuen Antonio Aragon Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren zuzen-dariak. «Egun hauetan Lopez Borderiasekin bilduko naiz lanen Segi-mendu Batzorde bat osatzeko, eta expropiazioak eta antzeko gai-ek buruz hitz egiteko», bere esanetan. Orain, eta lehenbailehen proiektua informazio publikora atera behar duela azaldu zuen, gero lanekin hasteko. Zabalketaren ostean, Nafarroan Esako urtegiaren 15.000 hektarea egonen dira, «honek suposatzen duen aberastasunarekin».



**Francisco Lekunberri**  
Bilaketa Taldekoa

Aste honetan aurkeztu da Iruñean Nafarroako Zaharren Gida, Estatu mailan aitzindaria, adinako jendearentzat zuzenduta. Bilaketa Agoizko talde kulturalako hiru gaztek egin dute: Francisco Lekunber-ri, Daniel Frauca eta Ignacio Cortes. Lan hau burutzeko zazpi hilabete eman dituzte lanean. Dirua Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate sailak jarri du, akordio batera iritsi baitziren. Gidaren hel-burua «dauden eskaera eta ekintzen informazioa eskaintzea da, adi-neko jendeak aukera dezan nahi duena», esan zuen Lekunberri. Le-geak ezartzen dituen eskubideak, pentsioei buruzko informazioa, denborapasa, zerbitzu sozialak, osasun arloko zehaztapenak, kultura, orientazio praktikoak, eta abarreko informazio eskaintzen du gidak.



HERRIZ BERRI

Bera


## Artista ezezagun baten erakusketa

PATXI ULAIAR / BERA

Rene Paul Gelos urruñarraren eskultura eta pintura erakusketa zabalduko da bihar, larunbata, hilak 17, herriko Kultur Etxean, bertako Udal Kultur Batzordeak antolatuta, eta Bera eta Urruña herriek duela bi urte hasi zituzten harremanen barruan. 1980tik 1993ra bitarteko 45 margolanek eta azken hiru urteotako 25 eskulturak osatzen dute erakusketa bitxi hau, mundu zabalean lan franko paratu baina bere herrian oso ezauna ez den artistari omenaldia egiteko modu bikaina.

Rene Paul Gelos Ziburuko Jean Charles Colin pintore, musikari eta eskultorearekin hasi zen pintatzen, eta Toulouseko Arte Ederretako Eskolan lau urte eman ondoren, Henri Bourdet pintorearekin topo egin zuen 1950ean. Honek bizitzari buruz begiak «ireki» zizkion eta ordura arte ikasitako guztiaz ahanzteko gomendioa egin zion, bera zen bezala pintatu ahal izateko. Hortik bere lana: sendoa baina delikatu, poesiaz eta indarraz betirik. Kolore bortitzak ditu gustukoak, silueta nabarmenduga-beak, definiziorik eza.

Sari franko jaso ditu, eta zenbait aipatzearen: 1945eko Toulouseko Pintura eta Marrazki Sari Nagusia 1. sariak; 1964eko Euskal Kostaldea Biurtekoaren Pintura Modernaren 1. saria, eta 1966ko Firma Sarian aipamena. Erakusketa franko paratu ditu Euskal Herrian eta atzerrian. Pariseko Orsay galerian, kasu, bi urtetik bi urtera erakusten ditu bere lanak, 1983tik aurrera, eta Japoniako Kyoton ere zintzilikatu izan ditu pinturak. Halaber, bere bilduma mundu osoan zehar zabaldua dago: Suitzan, EEB-Betan, Polonian, Alemanian eta Ingalaterran, besteak beste.



Rene Paul Gelos.

TTIPI-TTAPA

Baigorri

## Basaizearen Kultur Astea prest

P.U. / IRUNEA

Urtero bezala, eta hamabostgarren aldiz, Baigorriko Kultur Astea antolatu du Basaizea Kultur Elkarteak. Horren barruan, Nafarroaren Eguna, hilaren 25ean, igandean, ospatuko dena. Xalbador berriro ere gogoan, Kultur Astearen lema berak botatako ondoko hitzak baitira: 'Nafar hitzez eta harriz ezin hautsiak dira gure lokarria'.

Astea apirilaren 24ean, larunbata, hasiko da, arratseko 10etan Baigorriko elizan egingo den kantaldiarekin: 'Nafarroa Xal-

badorri'. Hurrengo egunean, igandea, urtez urte mugaz bi aldeetako nafar franko biltzen duen Nafarroaren Eguna ospatuko da. Goizeko 11etan goizeko agurra izango da gaiteroekin, eta esku langileen erakusketa zabalduko da Islan. Eguerdian haurren ikuskaria izango da Elizako plazan, Lizarra eta Tafallako buruhandi ttipiekin, eta trikitilariak eta Arrolako dantzari ttipiak ere izanen direlarik. Horiekin batera, Zangozako buruhandiak, mutxi-koak Adartza taldearekin eta karraketan gaiteroak eta txarangak. Arratsaldeko ordu bietatik

aurrera bazkaria izanen da Islan, eta Setatik aurrera, Behereko plazan, dantza eta kantaldia. Bertan ikusi ahal izango dira Monteagudo eta Ribaforadako paloteado dantzak; Tuterako jota Erriberako dantzariekin (orotara 45 dantzari); Kazkabarra kantari taldea eta dantzaldia, gauerdia arte, Adartza taldearekin.

Apirilaren 27an, astearte, mahaingurua izanen da Baigorriko Bixentainean, arratseko 9etan, ondoko gaiarekin: 'Herriko bestak: herritarren bestak?'. Asteazkenean Haurren Eguna izanen da Bidarrain, eta 12etatik

aurrera iganaldiak, kanoe, zaldi eta oinezko ibilaldiak izanen dira. Arratseko 9etan, Arrosako zinema gelan, Zinema Gaua.

Apirilaren 28, 'Garapen menturari ba ote da Garazi-Baigorri?' izeneko mahaingurua izanen da Irulegiko bestetako salan, arratseko 9etan, eta ortziralean, 'Eva for ever' antzerkia, Ortzaizeko Garbi salan, arratseko 9etan ere. Larunbatean dantzaldia izanen da Bixentainean, Kiki Bordatxo taldearekin, eta igandean, Basaizearen Eguna ospatuko dute kultur astea antolatu duten langile guziek Manexenean.



**TUTERA**n egin nahi den hondakin solidoetarako tratamendu plantaren kontrako txostena burutu du Greenpeace talde ekologistak, Landazuriak elkartekoek azaldu dutenez. Txostenean agertzen denez Cast talde italiarrak paratu nahi duen zentru honetan prozesu termiko bat erabiltzeko, eta horrek, taldearen ustetan, metal astunen isurkin kopuru handiak sortuko lituzke. Halaber, bertan erabili nahi den metodologiari buruz bere «mesfidantza» azaltzen du taldeak, «teknologi 'mirakulutsu' franko ikusten ari baikara egunotan, ezagutzen diren hondakin kutsakorrenak erabat deuseztatzeko kapazak». Greenpeace taldek honi buruz jarraipena egiteko gomendioa luzatu dio Landazuriari, eta bere jarrera zentru hauen kontrakoa dela dio.

**LIZARRA**ko Noveleta dermioan III. Karlistadaren garaiko obus bat aurkitu berri du Juan Satrustegi bertako idazleak, oso egoera onean gainera. Eztanda egiteko espaloia Iruñetik etorritako artifizioek deuseztatu zuten. Horrelakorik ez da sobera bitxia zonaldean, duela urtebete antzeko gailuak aurkitu baitziren bertan, baina bai mende bat luze iraun izana. Lurraren altxorak oraindik gordetzen dira industrietan eta errepideak gorabehera.



**MENDILLORRI**ko urbanizazioa heltzeko errepide berrien proiektua ez da abuztura arte amaituko, Lopez Borderias Nafarroako Herrilan kontseilariak esan duenez. Kontuan harturik udazkenerako etxe gehienak amaituta izango direla, errepide berrien atzerapenak kalte handiak sor ditzazke, 12.000 ibilgailu berrik, egunero, Iruñeko bidea egingo dutela kalkulatzeko baita. Proiektuaren aurrekontua 20 milioi pezetakoa da, eta asko azkartuta ere, berandu helduko dira.

**BAZTAN**, Malerreka eta Bida-soako alkateek Lesakako Alkai-ga poligonoaren lanek duten atzerapena dela eta bere haserre agertu dute eta Alli lehendakariarekin elkarriketa eskatu. Poligonoari buruz akordioa iaz lehendakariak egin zuen bisitan lortu zen, eta itxaropen handiko proiektua ikusi zuten alkateek. Denbora pasa da eta ez dute berririk jaso, eta epeak oso atzeraturik daude. Legasa eta Igantzirako sarbideen lanak hasteko premia azpimarratu zuten alkateek Bertizen burutu zuten bileran.



**A**ezkoako Bailara Garatzeko Egitasmoa aurkeztu berri du bertako Batzar Nagusiak, alde honek bizi duen egoera larriari irtenbidea eman nahian. 2.090 milioi pezetako aurrekontuarekin, helburua abelazkuntza, turismoa eta nekazaritzarako industria garatzea dauka, gazteek bertan irtenbideren bat aurki dezaten.

## Aezkoa, etorkizun bila

A. BARANDIARAN / AEZKOA

Aezkoan bizi den egoera azaltzeko Artzibar, Erroibar edo Urraul aipatzen ohi dute frankotan aietzek. Dena husten ari dela eta etorkizun zaila dagoela diote, baina Aezkoak ez du antz handirik inguruan dituen eremuekin. Bertara heldu eta arreta pizten duen lehendabiziko gauza etxe dotoreak dira, bidean aurkitutako herri arrailduen ondotik. Inork ez luke esango sekulan jasan duen garairik txarrean murgildurik dagoela, etxaldeak eta karrikak ederrak baitira, itxuroso askoak. Gehienak joan den mendearen bigarren aldikoak edo mende honen hasierakoak, —suteek eta gerrateek kupidarik gabe suntsitu zituzten aurrekoak—, herriak oso ongi gorde dira, eta ez dute inguruko herrietan bizi den populazio hustuketaren itxura. Nolanahi ere, zenbakiak esanguratsuak dira. Ibarrek 1860an 3.557 biztanle zeuzkan, 1990ean 2.788, 1959an 2.619, 1970ean 1.727 eta 1991n 1.128 besterik ez. 1.128 biztanle 195,5 kilometro karrikatuko zona batean.

Egoera ez da bitxia: mendialdeko leku guztiena bera. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza ziren ekonomia ardatzak, eta arlo hauen garrantzia gutxiagotu den neurrian, ibar hauen behar-kada etengabekoa izan da mende honetan. Baina Aezkoak badu xarma. Ongi asko gordetzen dituzte beren baitarako etxeko kontuak, eta harro-harro agertzen dira bisitariaren aurrean. Komeriak barrutik doaz. Azken lau urteotan 55 gaztek alde egin dute bailaratik, eta denek aitortu dute egoera hil ala bizikoa dela. «Despopulazio honi galga jartzan ez badiogu, luze gabe zaharrendako neurriez hitz egin beharko dugu», dio Miguel An-

gel Del Rio Aezkoako Batzar Nagusiko presidentea.

Patata eta abelgorria ziren duela gutxi arte ekonomia oinarriak baina biak iraganean pausatutik gelditu ziren, garai berriari aurre egiteko indarrak gabe. Patata ekoizleak biltzen zituen OPPOSA izeneko elkarte luze gabe itxi egin liteke eta zenbait herriaren dagoeneko ez da ezta biltu ere egiten ereindakoa. Lur azpian usteltzen uzten dute lehen fama handia zuena. Esanguratsua.

Behi haragiarendako ere garai txarrak heldu ziren Europako Komunitatean sartzearekin, kompetentzia franko areagotu baitzen, eta berehala sumatu zen hobekuntza genetikoak inoiz egin ez izana. ASPINA abelgorrien hazkuntzarako elkarte duela sei urte sortu zen, arraza honen hobekuntza horiek, hain zuzen ere, bultzatzeko, baina beranduegi zen askorendako. Gazteek jota zeuden, abeltzaintza eta nekazaritzatik kanpo irtenbiderik gabe, hiriko bidea hartu zuten, eta bertan oso gutxi gelditu ziren.

**AITA ETXEAN NAGUSI** Horiatariko bat da Juan Carlos Barberena Garraido Danbolinenea etxaldekoa. Aitak erretiroa hartzerakoan, anaia nagusiak hirirako bidea hartu zuen, eta berak etxeko behialdea hartu edo bere anaia bideari jarraitzeko bigurutzearan izan zuen bere burua. «Hemen gelditu nahi nuen, eta ez zegoen beste irtenbiderik. Etxeko esne behiak kendu, eta behigorriak jarri nituen. Beste lagun batekin bidea bat egin, eta gaur arte, behialdea osatzen».

Inbertsioa egin zuten baka-rranetakoak dira herrian, bailara osoan ohizko behialdeak 12-14 burukoak baitira. Jabeak, gehienbat, zaharrak izanik, eta kontuan hartuz azienda bat errentagarria izateko 40 buruko kopurua behar direla, kasu aipagarria da Danbolinenearena. «Aita, hemen, etxean den bitartean, nagusia da, eta gazteak laguntzaile moduan aritzen dira bakarrik. Horren aurrean gehienek hiriko bidea hartu zuten, eta ez dago abeltzain gazterik. Nik nere garaiaren zortea izan nuen, % 60ko dirulaguntzak ematen baitzituzten proiektu berriak egiteko, eta egun soilik % 20-30 bitarte ematen dutelako».

Egun 40 behi ama dauzka, eta 80ko kopurua lortu nahi du, taldea errentagarria izan dadin. Haragia kalitatekoa dela dio, eta


prezioak egun nahiko apalak dira ere —500-600 pezeta bitarte kilo— Aezkoako Batzar Nagusiak abelgorria haragi garrantzidunaren merkaturatzea bultzatzeko egitasmoa irtenbidea izan daiteke hortik bizi nahi dutenendako. «Haragi honek fama handia dauka, naturala eta kalitate onekoa baita. Besteak baino garestiago da, eta garrantzia sortuko balitz, aurikuspen handiagoak irekiko lirateke». Aurikuspenak, izan ere, ez dira txarrak, eta bertan etorkizuna bilatzeko erabakia berriro ere hartuko lukeela dio duarrik gabe. «Nere adineko gehienek alde egin dute, baina ni pozik nago. Hemen inork ez dizu agintzen, eta zeu zara jaun eta jabe».

**ABELGORRIAREN HOBKUNTZA GENETIKOA** Felix Jamar, Garaioako Maisterra

etxekoa, ASPINA abelgorri hazkuntzarako elkarte presidentea eta Batzar Nagusiko presidentea ohia, egoera oso beltza dagoela aitortuta ere, baikor mintzatu da «euskara bezain zaharra eta Aezkoarendako funtsezkoa» den abelgorriari buruz. «Duela sei urte egin genuen liburu genetikoan lehendabiziko inskripzioa, eta hobekuntza genetikoaren lehendabiziko emaitzak heldu den urtean ikusiko ditugu. Asmoa izan da haragitsuagoa egitea, baina gogortasuna kendu gabe, eta erditzeko orduan zitu-ten arazoak ere saihestea».

Abelgorria Euskal Herria osoan, Aragoi eta Kantabrian bereziki dago zabalduta, baina Nafarroak dauka buruen % 80. Oro har, 12-14.000 buru guztiak lurrean. «Gutxi, baina kalitate izendapena lortuz gero, haragia berez gehiago preziazuko da». Hori lortzeko oztoporik handienak azienda txikiak, eta baita go-


**A**ezkoako Batzarre taldeak ordezkar bat dauka Batzar Nagusian, Malli Txapar Orbaizetako alkatea, hain zuzen ere, eta oraindik talde gisa erabakia hartu ez badute ere, kritiko agertu dira egitasmoa dela eta.



bernuak berak paratzen dituen zailtasunak direla dio Jamarrek.

**AEZKOA BATZARRE KONTA** Sales Santos Vera, 'Sales', Aezkoako Batzarreko taldekoa, kritiko agertu da bailaren egoeratik ateratzeko egin diren proposamen batzuekin, eta bertako etorkizuna gizarte kapitalistatik kanpo dagoela dio. «Jendea garbi aurkeztu behar zaizkio gauzak, eta esan: 'Kotxe on bat eta bideoa eduki nahi baduzu, alde egin Iruñera; bizitza kalitate maila handia nahi baduzu izan, gelditu'. Izan ere, hemen ez dira 100.000 pezetako hilero ateratzen ezta 200 beherekin ere, eta jendea ezin zaizkio itxaropen hutsalak eman. Hona ez dira sekulan etorriko industriak».

Aezkoako Batzarre taldeak ordezkar bat dauka Batzar Nagusian, Malli Txapar Orbaizetako alkatea, hain zuzen ere, eta oraindik talde gisa erabakia hartu ez badute ere, plangintzaren kontra azaldu dira garbi. «Ondo dago hemendik eta hemengorako egina izatea —dio Salesek—, Batzar Nagusiak duela bi urte defenditzen zuenaren kontrakoa baita, baina finantzazioa utopia hutsa da. Nafarroako Gobernuak ez du diru hori emango eta Batzar Nagusien finantzabide bakarra Irati oihana da. Eta diru hori lortzeko pago kopuru itzela bota behar da». Egitasmoaren filosofiaekin, oro har, ados dago, baina gauzak bere onetik aterako ote diren beldurra sumatzen zaio garapen hitza aditzen duenean. «Hemen bizi ahal izateko lehen bezala bizi behar da: diru gutxi, baina kalitate maila handia. Badago beste aukera bat, jakina, baina hori da garapen kapitalista basatiarena, eta hori ez dugu inondik inora nahi. Egitasmo erraldoi honetatik aparte ere badaude aukerak finantzabideak



Goian, ezkerrean, Juan Carlos Baldakoa Danbolinenea etxekoa, herrian duen behiendako bordan. Eskuinaldean, Miguel Angel Nagusiko presidentea, Ariben dagoen Bailarako Etxean. Hemen goian, Felix Jamar Garaioakoa eta ASPINako presidentea. Eskuinean, Abaurrepea. A.B.

## «Gurditik tiratuko dugu»


A.B. / AEZKOA

«Aezkoak gurditik tiratuko duen uste osoa daukat. Bizitzeko gogo dago bailaran, bestelaz ez baitzen egitasmo hau egingo». Miguel Angel del Rio Aezkoako Batzar Nagusiaren presidentea buru-belarri dabil aurkeztu berri duten egitasmoan, eta «akats handiak» izan ditzakeela aitortu badu ere, aitzindariaren kutsua duela nabarmendu du. «Pirinio osoan ez da sekulan horrelako plangintzarik egin».

Plangintza orokorra egiteko asmoa ez da gauza berria Aezkoan. Bertako Batzar Nagusian eta batzarretan frankotan ezta-

baidatua, urteak joan eta urteak etorri, nekazaritza eta abeltzaintzaren egoera larriak eta despopulazioak lehen urratsa ematera bultzatu dituzte aietzak. Egitasmoak, 2.090 milioi pezetako aurrekontuarekin, bailarako arlo guztiak hartzen ditu kontuan, eta inguruko ibarrei ere luzatu zaie, arazo eta soluziobideak antzekoak direlakoan.

Del Rio zenbait arrazoi nagusi paratu ditu egitasmo orokorraren beharra azaltzeko. Lehendabizikoa, baldintza kaskarretan dauden aldeekiko «elkartasuna».



dagoela esaten digute, hau da, dirua betiko lekuetara joaten dela. Lurralde osoan inbertitu behar dela esaten dugunean, dirurik ez dagoela esaten digute. Baina Urralbururen gobernuak aurkeztu zuen Pirinioetako Parke Naturalarendako, kasu, 13.000 milioi pezetako dirulaguntza zegoen aurrikusita, eta 1.500 milioi pezetako urteko. Dirua badago, baina ez irtenbide berriendako», dio Del Rio. Azkenik, ibar osoan dagoen onespina azpimarratu du. «Proiektu irekia da, eztabaidari zabaldua, baina lanean hasteko puntu bat da. Hori bai, garbi daukagu gobernuaren laguntzarik gabe ez gara garaiz helduko gure geltokira».

Egitasmoak lau ardatz ditu: abelazkuntzaren garapena; nekazaritzaren industrializazioa; hezkuntza-prestakuntza eta turismo-garapena. Zenbait proiektu dagoeneko martxan daude —Irati Irratia; kanpatzeko eremuak— eta beste ekimenak ikeritzen ari dira, hala nola zentral hidroelektriko tikiak ezartzea Irati ibaian; arrain haztegia Ariben eta oihan merkaturaren parte hartzea.

Arlo guzti hauen artean lehen tasuna abelazkuntzak eta nekazaritzak dutela dio Batzar Nagusiko presidentea. «Kontuan hartu behar dugu Aezkoako populazioaren % 40 oraindik hortik bizi dela, eta garrantzidun haragirik hasi beharko genuke. Turismoa ere oso garrantzizkoa da, etorkizunerako baliabidea baita».

Arlo honen barruan ekomuseoa egitea, Aribeko bainue-txearen berrezarpena, eta landa turismoaren bultzada aurrikusten dira, goi mailako hotel batekin batera. Hau izango da, hain segur, eta Pirinioetako beste ibarretan gertatu den bezala, eztabaida handien sor lezakeena.

deak. Hori dela eta, guk hartu dugu oraingo honetan eskumena».

**«FINANTZABIDEAK LOR DAITEZKE»** Halaber, egitasmoaren

finantzaketaren arazo gainditu daitekeelakoan dago, nahiz eta arlo hau izan den bailaran eszeptizismo handien sortu duena. «Dirua eskatzen dugunean, finantzabideetan aldaketarik ez



## Gazteendako Zokoa

## Bertsoak

Zure bikotea erditzeaz dago, eta zu bere berrien zai kanpoan. Sakanako Bertso Eskola.

Bi ordu luzez gela hotz hontan nago zuen berrien zai hatzak hozkaka, mina nagusi ta ez dut geldi egon nahi ez naiz izango egoera hau nolanahi pasatzeko gai hola nagoela bertan urduri medikua han zen lasai 'mutil guapo bat atera zaik ta egon hadi motel lasai!' (bis)

Seme maitea joka ezazu zure aitaren antzera lanean beti denoi lagunduz alde batetik bestera ez zazu egin inoiz atzera den hasi ekin aurrera eta borroka egin indartsu arrazoiaren aldera esandakoa bete ezkeru zu ZATO izango zera (bis)

Mikel Mundinano



XAKEAN

Gaurtik aurrera, txoko honetan Nafarroan jokaturako hainbat xake partiden berri emango dizuegu astero. Gaurko honetan Nafarroako Banakako Txapelketaren barruan Jesus Miguel Perez (ELO 1.960) eta Unai Garbisen (ELO 2.275) arteko partida eskeintzen dizuegu. Nafarroako 10. eta lehendabizikoaren artekoa, alegia.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,a6; 4.Aa4,Zf6 (espainiar irekiera); 5.o-o,Ae7; 6.d4,ed4; 7.e5,Ze4; 8.c3,dc3; 9.Ac2,d5; 10.ed6,Zd6 (Beltzek materialaren abantaila dute; txuriek, ordea, atake ederra); 11. Zc3m,o-o; 12.Zd5,Af5; 13.Af4,Ac2; 14.Dc2,Dd7; 15.Gac1? (Hobe litzateke errege eta damaren kolumna irekietan gazteluen poterea erakustea)..., Gae8; 16.Ag5,Ad8; 17.Gfd1,h6; 18.Af4,Ge6; 19.Db3,Gfe8; 20.Db7?? (harrigarria badirudi ere, jokalaria onek halako opariak ere egiten dituzte)..., Zb7; 21. errendatu da. 0-1

## Jenero Xumekoak

Jean Buridan

**X**IV. mendeko maisu eskolastikoa. Villonek bere 'AINTZINA-KO EMAKUMEEN KANTOREA-n' aldatzen du, bere ospea zela medioz. Nafarroako Joanaren maitaleetarikoa bat izan omen zen. Nesleko dorrean gau bat pasatutakoan, Nafarroako Joanak botatzen omen zituen bere maitaleak Senako uretara, saku batean sarturik. Jean Buridan ate nagusitik atera bide zen. Maitale onaren irudia.

JEREMIAS ERRO



## Kultura? Ze kultura?

XABI DE MIGUEL

Konkurtsuak, astero pelikula berdinak, iragarkiak, konkurtsu gehiago, berrien programaren bat, iragarki gehiago... Ah! Eta ez ahaztu konkurtsuak ere badaudela. Hori da gaurregungo telebista, behintzat, kate pribatuak sortu zirenetik.

Ondo dago pelikula bat ikusten egotea, noizbehinka publizitate ebaketa (horrela deitzen dute orain) batzuk egotea, komunera joateko, zerbait edateko, edo egunkaria pixka bat irakurtzeko. Baina orain dela bi urte ta piko, filmeek ez dauzkate noizbehinkako iragarkiak. Orain alderantziz da: iragarkiek noizbehinkako filme zatiak dauzkate. Gainera, iragarki egileek tontuak garestuak ematen du. Ondo dago produktu baten publizitatea egitea, baina pasatu gabe eta gu tuntunak bagina bezala.

Baina batzutan berdin da iragarki gehiegi egotea, zeren eta filme batzuen bukaera badakizu. Ez zineman ikusi duzulako, filme hori joan den astean beste kate batean edota kate berberan jarri zutelako baizik. Eta ez badute bota, berdin da, Ozores eta koadrila hori ikusteko...

Konkurtsuak inoiz ikusitako gauza txarrenak dira. Hasteko, konkurtsuak ezin dira horteroagoak izan. Konkurtsuetan zerbait lortu behar dela zure jakinduriarengatik uste du jende askok, ez zure ezkontidearekin dituzun harremanengatik. Jarraitzeko, publizitate arazoarengatik. Konkurtsua egiten den gela osoaren txoko guztietan zehar ikus daiteke produktu baten iragarki bat, eta hori indartzeko aurkezlea beti dago produktu horri buruz zerbait esaten, eta batzutan, konkurtsaileei produktu hori ematen diete. Eta bukatzeko. beraien

ideiak ez dituzte argi. Momentu batean ondo bizitzen dena norbaiti tontakeriak egiteagatik 40 milioiko etxe bat Torrebiejan ematen diote, eta ondoren Somaliarekin elkartasunarengatik dirua eskatzen dute. Hobe lukete bi astetan egindako konkurtsuetako dirua, behar duten lekuetara bidaltzea, eta tontakeriak uztea.

Non gelditu dira dokumentalak, serie politak, pentsatzeko konkurtsuak, kirolak, eta filme onak? Orain arte, kate publiko batek guzti hori ebitatu du, baina dirudienez, kate pribatuaren birusak oso erraz kutsatzen dira, eta orain dela gutxi ordu erdiko serieetan iragarkiak sartzen hasi dira, eta programa hortararen bat ere sartu dute.

Noraino ailegatzeko gai gara, ikuslegoa gogaitzearen? Hori dirudi telebista kateen arteko eguneroko lehiaketa (zortea badugu emititzen ez dutelako...).

## KAZKARROAN

## KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Saldiasen jasotako esatera zahar bat ageriko zaizu.

1. Asmagin

2. Tankera

3. Hadi, niri

4. Zuhaitz zati

5. Behi ume

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | 2 | D | 9 | B | 7 | D | 5 |
| B | 2 | D | 4 | A | 9 | A | 1 |
| A | 3 | A | 4 | D | 6 | B | 8 |
| D | 8 | A | 8 | B | 5 | D | 3 |
| B | 1 | A | 7 | B | 9 | B | 6 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| A |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| B |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| D |   |   |   |   |   |   |   |   |   |

N-68



## Lekuizenak aztertzen

**E**zin uka leku izenek inoiz baino buruhauste gehiago ematen dizkietela kazetari eta pertsona guziei. Lehen inor gutxi kezkatzen zen huskeria hauekin. Planoetan agertzen ziren izenak ontzat hartzen ziren, eta inork ez zuen horien gaineko dudarik. Jendeak miresten baitu idatzia dagoena. Baina mapa hauetan leku izenak apaingarri hutsak ziren. Nola edo hala kokatuak eta idatziak, baina guzizien begien aurrean zeudela finkatuz joan ziren gure usadioan. Erdarazko izenak ez ziren kalterik gabe atera egoera honetatik, eta euskaraz idazteko ortografiarik ez da izan orainsu arte. Honetaz gain mapagileek euskara haundirik ez zekiten eta aditzen zutenetik idazten zutenara behar baino alde haundiegia izaten zen.

Egoera tamalgarri honetatik abiatuta gure leku izenen aldeko erresistentzia hasi zen. Hasieran bakarrak: mendizaleak alde batetik beren gida eta menditontorren katalogoekin eta hizkuntzalariak zenbait herritako leku izenak argitaratzen. Baina esfortzu guzi hauek gehienetan bidebakterean gelditzen ziren minorien artean zabaltzen zirelako eta okerreana, borondate ona izan arren, errore gaitzak ere izan zirelako hauen artean. Euskalduntasunaren izenean izen berriak asmatu ziren, euskaldunak bai baina sasikoak era berean, eta 'k' eta 'tx', maiz euskararen sinbolo bilakatutak, behar baino urrutiago eraman dira. Hitz bakar batean laburbilduz: desastrea.

Hona hemen gaur hasten den sail honen helburua, argitzea zein den Nafarroako izenik korapilatsuenen forma egokia, Nafarroako Toponimia Xeha biltzen ari den taldeak proposatuta Nafarroako Gobernuak ofizialtzat hartuko dituen formak aurkeztea. Oso beharrezkoa iruditzen zait kontu hauek ahal den moduan argitzea, alperrikakoa baita alturretan ibiltzea, goimailako aldizkarietan mila gauza idazten aritzea jendearekin harremanik ez badago.

Hona hemen ondorengo Nafarkarietan aztertuko diren lekuizenak: Belagua/Belagoa; San Cristobal/Ezkabā; Elomendi/Higa; Biaizpe/Atxitarte/Dos Hermanas; Lizarzerria/Estellerria; Iruñea/Iruña... Gehiago izanen dira aurki. Irakurleak proposa ditzala eta ahal bada horiek ere azalduko dira txoko honetan.

MIKEL BELASKO



## Bizi Bizian

## Baden Powellen jarraitzaileak

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Alorapeko kideek helburu bikoitza finkatu dute taldearen 20. urtemugaren ospakizunak antolatzerakoan: alde batetik taldea berrindartzea eta bestetik eskultismoa ezagutzera ematea. Taldeari dagokionez, Alorap Antsoaindar Eskaut taldea duela 20 urte sortu zuten Esclavas mojek haien ikastetxean. Urte batzuk pasa eta gero gazteek eskultismoaren lekukoa hartu zuten mojen eskuetatik, eta horri esker bi hamarkada bete ditu antsoaindarren taldea. Patxi Jimenezek aitortu duenez, baina, taldea, egun, ez dago sasoirik onenean.

Bertan aritzen diren 16 monitoreek 40 haur besterik ez daukate haien ardurapean, baina Jimenezen ustez hori normala da: «Eskolek ere ixten dute orain haur gutxi dagoelako». Egun Alorap taldea —Nafarroako beste 14 eskaut talde bezala— Euskal Herriko Eskautak Nafarroa (EEN) izeneko elkarteak antolatzen du, eta bide batez Euskal Herriko Eskautak-ekoa. Patxi Jimenezek azaldu digunaren arabera, EENtik landa egon badaude beste eskaut batzuk Nafarroan, «baina uniforme eta beste hainbat gauzari garrantzi handia ematen diete, eta guk berriz ez, egitura militar horietatik ihes egiten dugu». Jimenezek esandakoaren arabera, zapia da haien uniforme bakarra.

EUSKAL HERRIKO  
ESKAUTEN  
GARAPENA

EENko taldeek metodologia eta helburu berarekin egiten dute lan haien auzo eta herrietan. Jimenezen hitzetan, «Naturan haurrak aisialdian heitzeko baliabideak bilatzen ditugu, 20 urteek ematen duten esperientziak, eta erakunde handi baten laguntzaz». Heziketa horren garapena hainbat talde edo sailkapenetan gauzatzen da. Eskaut gazteenek 11 urte betetzen dituzten arte 'Kaskondoak' dira, eta garai horretan «taldean elkarrekin bizitzen ikasten dute, talde handi eta txikietan eta jokoan laguntzaz». Hamalau urte izan arte 'Oinarrinak' dira, eta hiru urte horietan «talde txikietan, lehen ardurak onartzen eta aurre-

**E**uskal Herriko Eskautak Nafarroa taldeak landa ere badaude eskautak, baina uniforme eta hainbat gauzari garrantzi handia ematen diote, eta guk egitura militar horietatik ihes egiten dugu».




ra ateratzen dituzte, abenturen bidez ikertzen». Hamabost eta 16 urteko eskautek 'Azkarak' izena hartzen dute, eta «elkartasunean lan egiten irakasten zaie, konprometua bultzatuz eta erabakiak elkarrekin hartuz». Azkenik, 17 eta 18koei 'Trebeak' izena ematen zaie, eta adin honetako eskautak «helburuak markatzen hasten dira, gizartea zer den ikasten dute, eta aldi berean gusztatzen ez zaiena aldatzen saiatzerara animatzen ditugu». Aipatutakoaz gain badago beste ardatz bat Baden Powellen —eskultismoaren asmatzailearen— jarraitzaileen aisialdirako hezkuntzan, Jainkoa alegia. «Euskal Herriko eskautek heziketa osoa aintzartat hartzen dutelarik, pertsonaren erlijio heziketa proposatzen du, honek bakoitzak bizi duen mundua hobeto ezagutzen eta aldatzen laguntzen baitio, trantsendentziari irekiz, eta sinesmen elkarteetara bultzatuz».

Antsoaingo eskauten  
20. urtemuga

J.K.L. / IRUÑEA

Alorap Antsoaingo Eskaut taldeak datozen zortzi egunotan egingen den ekitaldi zikloa antolatu du bere 20. urtemuga dela eta. Ekitaldi guztiak Gazte Berri elkartearen aretoan izanen dira, eta bertan bihar 'Ameriketako bertako herriak' erakusketa zabalduko da arratsaldeko lauretan eta jarraian Amnesty International elkarteak kideek hitzaldia emanen dute. Igandean irekita izanen da aipatutako erakusketa, eta astelehenean, hilak 19, arratsaldeko 7etan hasiera ofiziala emanen zaie ospakizunei, 'Eskultismo: 20 urte Antsoainen' erakusketa zabalduz. Arratsaldeko 8etan '90eko hamarkadako gaztedia' izenburuko hitzaldia emanen du Bartolome de Carranza elkarteak kide batek. Astea-



Naturarekin harremana da eskauten oinarrietako bat.

tean 'Zer egin behar dugu alcohola eta drogei aurre egiteko?' hitzaldia emanen du Manolo Lopez Gizakia Helburu erakundeko zuzendariordeak.

Asteazkenean mahaingurua izango da arratsaldeko 8etan 'Antsoain, San Cristobal eta Argaren artean' esaldia abiapuntutzat harturik. Bertan izanen dira Javi Peralta biologia irakaslea, David Guzman biologoa eta Anat-Lane elkarteak kidea, Carlos Belaskoain biologoa, Jose Ignacio Urmeneta biologo eta SEN Gorosti elkarteak kidea eta Mikel Otazu Antsoaingo Eskolako irakasle eta Auzo Elkarteak kidea. Ostegunean arratsal-

deko 8etan 'Hezkuntza aisialdian: Eskultismo 20 urte Antsoainen' izeneko hitzaldia izanen da, eta bertan izanen dira Alorap taldearen zenbait bultzatzaile eta monitore ohi. Ostira-lean, 8etan, 'Gaztea eta aisialdia: aukera ezberdinak' izenburupean mahaingurua izanen da berriro ere, eta larunbatean jai giroa nagusituko da. Goizean gazte-txoenentzako jokoak izanen dira eta arratsaldean, 5etatik aurrera txokolatada. Igandean eguerdiko 12etan meza izanen da Esclava mojen eskolan, ordu batean Eguzki-Eder dantza taldearen emanaldia eta 2.30etan herri bazkaria.



## Felix Ziordia 'Iris'

..... Malabarista

**E**z naiz pailazoa», dio, «akaso bufoia». Bere jokuek dituzten zailtasunak azaltzeko pare bat aldiz hartu ditu pilotak eta kapelak elkarriketa bitartean eta, egia esanda, edozein harritzeko moduko tre-

bezia dauka iruindar honek. Malabarista profesionala, kexu azaldu da jendeak lan honi ematen dion tratamenduaz, eta helduak nahiago ditu bere lanak azaltzeko. «Umeei goxoki batekin sartzen zaie ziria».

# «Sortzea zoragarria da»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Malabarista izatea barruan eramaten den zerbait da?

**FELIX ZIORDIA 'IRIS'.**— Ni 21 urterekin hasi nintzen, lagun batek irakatsi zidalako, baina hasieran nik ez nuen ezer koordinatzen. Pilotan jokatu dut betidanik, eta katxoa nintzen, orduan, eskuinekoarekin ez nintzen ezer egiteko kapaza. Hala ere, ekin nion, eta pixkanaka mundu honetan sartu nintzen. Gero hemen Iruñean Trokolo taldea osatu zen, eta nik malabarrarekin gelditu nintzen.

**EGUNKARIA.**— Malabarra soilik eskuekin egiten diren jokuak dira?

**IRIS.**—Malabarista da airean jokuak egiten dituen, tresnekin. Baina mota asko daude.

**EGUNKARIA.**— Orduan, ez da dohain berezirik izan behar, ikasi egiten da.

**IRIS.**— Hala da, baina oso garrantzitsua da bakoitzak egiten duen bidea. Izan ere, ez dago eskolarik, ez dago erreferentziarik, eta nik daukadan teknika, neuk ikasi dut. Kuban, adibidez, zirkul eskolan, akrobata, magoak eta ekilibristak hezitu egin daitezkeela esaten zuten, baina malabarista izateko jaio egin behar zela. Zerbait barruan izan behar da. Akaso honek eskatzen duen sakrifizioarengatik izan daiteke.

**EGUNKARIA.**— Hari baten gainean zintzilik egotea edo magia egitea baina zailagoa al da?

**IRIS.**— Zirkuaren barruan, malabaristak egiten du lan gehien. Bizia ez duten tresnei bizia eman behar die, eta erreflexuak landu egin behar dira asko. Zertxobait uzten baduzu, dena galtzen duzu. Gainera, nik denetarik egin dut, eta horrek asko laguntzen dizu

gauza guztiak egiterakoan. Ez dakit zailagoa den edo ez, baina denbora eta arrisku gehiago eskatzen du.

**EGUNKARIA.**— Zuk istorioak egiten dituzu malabarismoaren inguruan. Badago malabarismo hutsa?

**IRIS.**— Bai, badaude joku hutsak, trebetasun erakustaldi hutsak, alegia, egiten dituztenak. Joera berriek, baina, istorioekin apaintzen dituzte jokuak, eta teknikaz gain gauza asko sartzen dira. Nik, akaso kale antzerkitik natorrelako, hortik jo dut.

**EGUNKARIA.**— Asko lantzen dituzu istorioak?


**IRIS.**— Istorioak baino, teknika.

**EGUNKARIA.**— Eroak edo trasteak dituzten istorioak aurkeztzen dituzu. Jendeak zein jarrera izaten du? Ulertzen al du egiten ari zarena?

**IRIS.**— Ez, ez du ezer ulertzen. Nik egiten dudana malabar jokuak soilik horretaz zerbait dakien jendeak ulertzen du. Ni gauza berriak egiten saiatzen naiz, eta Beasainen orain dela gutxi izan ditugun topaketetan jendeak izugarritzko onespina eman dio nire lanari. Baina jende arruntak soilik pilota bat erortzen zaizunean baloratzen dizu lana.

**EGUNKARIA.**— Eta jendearen aurrean zaudenean zer bilatzen duzu: malabar jokuak estimatzea edo ongi pasaratzea?

**IRIS.**— Hasieran soilik jokuak egiten nituen, eta jendeak alde egiten zuen. Orduan, eroaren istorioa sartu nuen, eta jendeak askoz gehiago estimatzen du antzerki hori malabar jokua baino. Hala ere, izugarritzko lana dauka jokuak, malabarista nagusienek urtetan errepikatu baitituzte joku berberak. Orduan, bi gauzak nahasteko, trebetasun izugarria behar duzu izan. Niri mutiko bat



LUIS AZANZA

aurrean jartzen baldin bazait, ezin ditut jokuak egin, berarekin aritu beharra daukat.

**EGUNKARIA.**— Trebetasuna edo artea da zurea?

**IRIS.**— Ni langile hutsa naiz. Artistak, niretzat, lan egin gabe dena oso ongi ateratzen zaizkionak dira. Nik lan asko egin behar dut egunero, eta eszenatokiaren aurrean dena jokuan jartzen duzu, jendeak batzuetan ez duelako estimatzen.

**EGUNKARIA.**— Min egiten dizu horrek?

**IRIS.**— Batzuetan bai. Jendeak jakingo balu zer-nolako lana eskatzen duten gauzek... eta ez dira ohartzen. Barruan min egiten du horrek. Ikusten dituzu gitarra edo abesten aritzen den jendea, eta artistak dira, eta niri, hasteko, ez zaizkit pilotak erori behar. Zazpi pilotekin ateratzen bazara, ongi, baina hirurekin bakarrik ateraz gero... ez dute estimatzen.

**EGUNKARIA.**— Malabaristen artean zer da estimatuena?

**IRIS.**— Zailtasuna eta originaltasuna, batez ere. Malabar jokuak

istorio baten barruan kokatuak aurkezteari onespina izugarria ematen zaio gaur egun. Zerbait desberdina aurkeztea oso garrantzitsua da.

**EGUNKARIA.**— Eta zein da tresnarik zailena?

**IRIS.**— Egiten duzunaren arabera. Pilota bakar batekin gauza sinestezinak egin daitezke, zazpi pilotekin egin daitezkeenak baino zailagoak. Pilota oso zaila da, harritzeko asko egin behar baituzu. Baloia eta kapelak ere oso zailak dira, eta azken hauekin nik sekulan ikusi ez ditudan gauzak egiten ditut. Originaltasuna da garrantzitsua.

**EGUNKARIA.**— Non egiten duzu lan gustuen?

**IRIS.**— Nahiago ditut helduak. Korean, kasu, 16 urtetik beherakoak ez dira zirkura sartzen. Hemen zirkua haurrei eskaini zaie, baina haur bati goxoki batekin ziria sartzen ahal diozu.

**EGUNKARIA.**— Eta guzti hau serioa da?

**IRIS.**— Nik seriotasun handia ematen diot. Baina jendeari barre eragiteko. Akaso seriotasun handiegia ematen diot, asko sufritzen baitut.

**EGUNKARIA.**— Zeinekin sufritzen duzu gehiago: zu bakarrik edo jendearen aurrean?

**IRIS.**— Ni bakarrik nagoenean. Egun asko eman behar ditut joku bat entseiatzen, orduak eta orduak, eta batzuetan ez da ateratzen. Eta ez dakizu zergatik. Gainera, nik zailtasuna bilatzen dut. Jendearen aurrean, hori bai, une zoragarriak izaten dira, zerbait sortzen duzunean. Eta asko hunkitzen naiz zerbait ateratzen zaidanean. Azkenean galga jarri behar dut, sekulan uste ez nuen mundu oso bat garatzen ari zaidalako barruan. Nire burua malabarista da orain.

